

SINGAPORE'N DIRUAK


# Federazio baten gaitzak

RIKARDO ARREGI

Malasia'ko federazioa 1963'go agorraren 16'an jaio zen. Esan liteke illabete ontan ila dela, Singapore federaziotik apartatu ondorenean. Ta zer?

Egia esateko egunerokotan ez du zarata geieirik atera Singapore Malasia'ko federaziotik ateratzeak. Baiñan orrek garrantzirik ez dela esan nai al du? Ez dut uste. Zer gaitzak?

Lehenengoz mapari begiratu bat eman dezaiozun. Bereala konturatu gera alderdi urta munduko alderdirik saltsatuena dela. Vietnam, Laos, Indonesia etab. an arkitzen dira. Baiñan aurrera jarraitu deza-dan.



ratsa. Beste bi zatiak Borneo ugar-

## NAGUSI BERDINAK IZANA

Mapa aurrean dugularik ikusten dugu Malasia'ko federazioa Peninsula baten bukaera duela zati bat. Zati ori benetako Malaia edo Malasia da, bertan arkitzen da federazioaren kapitala: Kuala-Lumpur. Bigarren zatia Malaia'n muturrean arkitzen zen: Singapore, lekuz txikia baiñan gizonez eta diruz abe-

tearen, islaren, iparrean arkitzen dira. Ipar Borneo ta Sarawak dira. Beraz Indonesia'rekin muga dutelarik. Ortikan sortu dira Indonesia'ren asarreak. Bi zati oiek askatasuna eman zaionean Indonesia'rekin ez direlako bat egin. Askatasuna edo askatasun itxura. Ori da beñe-pin indonesioak esaten dutena.

Nolatan eta zergatik bildu edo elkartu dira zati guzti oiek federazio baten barruan? Zer elkartasun dute federazio bat sortzeko?

Oiek denak Bretaña Aundiaren menpean egonak dira. Malaia edo Kontinenteko Malasia askatasunean bizi zen 1957'gna. ezkerotik baiñan 1963'gna. arte ez zen elkartu beste zatiekin Sarawak, Ipar Borneo ta Singapore'kin.

## TXINDAK, KOMUNISTAK, ETA MATEMATIKAREN ERAGOZ-PENAK

Kanpotik begiraturata ildako federazio onek jergilifiko bat ziru-dien ta jergilifiko ori soluzionazio ez jakiteak edo jergilifikoaren zentzurik ezak ekarri du federazioaren eriotza.

Federazio'ko biztanle guztiak ez baziran arraza berdiekoak. Arrazak ugari ta nahastuak arkitu zitezkeen Federazioan baiñan batez ere Malaioak eta txinoak. Malaioak

geiena Kontinenteko Malaia'n ziren eta txinoak berriz Singapore'n.

Malaia askatasunera iritxi baiño lehen gerrate gogor baten menpean egon zen. Gerrilleroen gerratearen menpean; baiñan azkenean ingelesak menperatu zituzten nola alabait gerrillero oiek. Auek ordea geien ber txinoak ziren eta orrik sortu ziren bildurak ingeles eta amerikanoentzat. Bildur baidira okzidentalak ta auen artean batez ere ingeles eta amerikano Asia'ko eguzkialde muturreko lurralde aiek komunista biurtu ote diran. Ez luteke nai lurralde aiek «kristau ta okzidenteko zibilizazioarentzat» galduak ikustea naiz eta ango biztanleak arrazoi ugari izan zurien gogoramen guztiak ahazteko.

Bildur orregatik sortu zen Federazioa. Ingelesak eta bere lagun Abdul Rahman Malasia'ko gobernuaren buru denak, Singapore, 90 % txino dituen Singapore bere bidetik utzi ezker komunista biurtuko zela pentsaturik Federazio bat egitea pentsatu zuten, federazioaren bitartez txinoak malaioekin berdindurik komunismoaren arriskua txikiagoa izan zedin.

Orrela Federazioa jaio zanean bere biztanleak 46 % malaioak ziren, 41 % txinoak eta 11 % indioak eta Borneo'ko dayak.

Malaioak berez tradizionalistagoak dira, nekazariek eta bear bada feudal esturktura batekin, musulmanak. Txinoak berriz askotaz ere progresistagoak, aberastagoak, komertziantek eta nik uste dut asko beñe-pin Txina Komunistaren alde.

## INDONESIA'REN ASARREA

Izan dira Federazio'ren eriotza indonesioentzat irabazi aundi bat izan dela esan dutenak. Ta orrela da. Federazio jaio zanean Sukarno Indonesia'ko lendakaria bereala esan zuen aiegin guztiak egingo zituela federazioaren eriotza etor erateko.

Federazioaren jaiotza Bretaña Aundiaren alegiaren fruitu zela esan zuen eta ori neokolonialismoaren egite bat zela. Arrazoi zuen oran. Ordu ezkerotik Borneo ugaritearen ipar aldean dauden lurrak eta gaitentzekoak Indonesia'renak zirela esanik gerrilleroak bidali diu alderdi aietara. Orain arte fruitu aundirik gabe egia esateko.

Malasia'ko federazioak U. N. O.'ren barruan leku bat izango zuela atera zen Indonesia U. N. O.'tik.

## INGELESK ETA BERE SOLDADUAK

Breña Aundiak gutxienean alderdi aietan berrogei ta amar mila soldadu dauzka. Soldadu oiek gaitera oso ikasiak daude gerrillak menperatzen. 1945'go guda bukatu ezkerotik ortan ari baidira, Ortan ikusten da Federazioaren gora-beherak nolako garrantzia duten ingelesentzat. Ori izan Wilson laboristak Vietnam'eko gora-beheretan zaro amerikanoen alde jokatu izateko arrazoiak. Bien artean, batzuek Vietnam'en eta besteak Malasia'n okzidentean posizioak defenditzen ari diralako Okzidentean ta kapitalismoaren interesak, jakin barrekoa bait da Malasta'ko Federazioaren ekonomi antolakezaro kapitalista dela. Atzerriko, au da, okzidenteko nagusiak direla alderdi aietan ekonomiarren jabe.

Beraz indonesioak abertzale ta sozialista bezela kapitalista ta neokolonialista zen Malasia'ko federazioa ez maitatzea ez da arriztekoa.

## ARRAZOIZKO EZKONTZA ASKOTAN ARRAZIOAREN KONTRAKOIA DELA

Zergatik alden du Singapore Federaziotik? Federazioarekin ez zelako ondo konpontzen. Txinoak eta malaioak ezin ziren Federazio baten barruan ondo konpondu. Malaioak ziren Federazioaren barruan geiena agintzen zutenak eta auetako askoek alegin geienak egiten zituzten txinoak aparte izateko. Gaitera diru kontua zegoen tartean.

Singapore Malasia baiño askotaz ere aberastagoa da. Orregatik eta lehenago esandagoatik singaporekoak esaten zuten txinoak diru kendu ugari egiten zuten baiñan Singapore'ko eginkizumetarakoa gutxi ematen zuten ta azkenean nai ta nai ez apartatu bearra zegola ikusi dute. Ta ori da egin dutena.

Breña Aundiak Singapore'n daukan soldaduk laguntza aundia ematen diote bertako ekonomiarri baiñan itxita dagon Indonesia'rekin komertzioa idikitzen baldin bada soldaduk ekonomi aldetik dakartziten abantailak asko gutxituko dira. Orregatik zail da etorkizunatzat itzegitea.

## NAZIO - ARTEKO UENA

# AGERBIDEA TA ZABALKUNDEA

KARLOS LERENA

Informazioa gertaerak ezagutzera ematea da. Onela esanda ba dirudi ez duela garrantzirik, baiñan informazioa errien bizitzarako garrantzi aundikoa da.

Gertaerak ezagutzera ematen diranean informatu bakoitzaren barruan pentsamenduaren prozesu bat sortzen da. Lehendabizi gertaera bat gogoratzen da, ta ondorenean postura artze batera irixten da. Baiñan epaltzoko ta postura artzoko askatasuna gutxituaz uzten zaio bakoitzari... Ematen zaion informazioarekin bide bakarra artu lezake, ahala ta indarra duten taldeak interesgarri zaiona bakarrik ematen baldute ta ez dugu shaztu bear oiek dirala informaziorako tresna ta bide guztiak dituztenak. Gobernuak ere bere eskutan arma aberats bat ba dute: politika informazioa. Estaduaren iraupena batez ere «erri itziti» deritzatonek dator, ta au gordietza erreza da zabalkunde arazoetan trebe dirantzat.

Politika zabalkunde au da azkenean informazioa zuzentzen duena ta gizonari dagokion errespeturik gabe, lizunki, egiten ditu beak. Gizonaren eskubideak, Eleizaren dotrina ta gizonaren dintasuna jasotzeko egunerok sortzen diren legeak ez dira itz uts batzuek besterik, barruan ezertzo ez dutenak. Nola okertzen dira gertaerak benetako ikuspenera eman ez dezaten?

Lehendabizi zabalkunde azia eroriko den zelai prestatzen da. Erriari ideia motx ta bereala bereganatuko dituenak ematen zaizkio, geienean «slogan» modura. Indar berez batekin ideia auek bein eta berriz zabaltzen dira. Onela sortzen konzeptu okerrak aberriatuz, erlijioatuz, etab., norberaren barruan balio aundi bat lortuko dutenak. Politika sistimari aurka egiten zaionean, erasoaldi auek lenagoko konzeptuek eginak bezela artuko dituzte ta orregatik bakoitzaren barruan ez dituzte onartuko. Onela gaitera etsai bakar bat sortuko dela sifistu erazitzen da ta orregatik estaduk nolnala etsai bakar orrekin burrukan ari bailira bezela azaltzen dira.

Erriaren aurrean azaldu eta beraren ordez Estaduaren buru izango diren gizonak gorapenez beteak izango dira. Onela seguridade itxura emango da ta berarekin jokatuko da konformismoa sortu dedin ta edozein postura artze urruti erazitzearen. Bein ideia errez auek «artu» ezker momentuko informazioa emango da. Gertaerak okertzeko erak asko dira: nai ez dana ez esan. Ezagutzera nai danari garrantzi berezi bat eman.

Ikildu ezin diran berriak gutxi ikusten den tokian eta letra txikiarekin jarri. Interesgarria dena aunditu, bai etsai baten aurka baldin bada, bai lider bat goratu bear baldin bada. Gertaera «zailletan» juizio «uts» bat eman gizonaren gorapenera ez pizteko.

Esandako guziarekin ikusten dugu informazioa politika zabalkundearen bide bat besterik ez da. Egia okertu ta gizonari aurretik besteak nai duen bezela pentsa erazitzen zaio. Gure egunetan irratilik edo telebistatik amuzioak esaten askotan esaten ikusten den umcaren irudia izan liteke errealdade baten buru: giza-talde bat itsu batek zuzendua.

Nola itzezin gero erriak gogoruan arazoetan bear dituzten artu-emanetaz erriak gaurko munduan zer gertatzen den ez baldin badaki? Nazioen politikaren bizitzan guzian lana bear baldin bada ta gizonaren eskubideak gorde nai baldin baditugu guk geok jokaera zuzen bat artu ta bestiek eskatu bear diegu.

Gizonak objektibidatearekin informazioa izan bear du gero askatasun osoarekin ankeratu dezan. Egia da informazioa objektibidate guzian ezin litzekela eman, informazioa ematen duen gizona subjektiboa delako, baiñan onek ez du esan nai kaneko gizona gurraren menpean jarri bear denik. Objektibidatea arkitzen aiegin du bear dugu beti ta ez gizonaren adimena zuzentzera. Ezin ditek gizonaren dintasun ahaztu.

